

FUNTSEZKO BALIABIDEAK:

Enpresa-proiektu bat garatzeko, gure kasuan, hurrengo baliabide motak hartu daizteke kontuan:

Alde batetik, externalizazio motakoak. Hemen, funtsezko baliabide bat kanpoko enpresa batek gara dezake, kostuak merkatzeko edo enpresa baten esfortzuak balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko. Adibidez, gure gimnasioko makinak, beste enpresa batzuei erosiko dizkiegu.

Bestalde, kostuak murrizteko helburuarekin: Gainera, gure langileak geuk kontratatuko ditugu, bitartekaririk gabe. Horrez gain, aurretik aipatu dugun moduan, makinak hornituko dizkigun enpresari halako eskaera handia eginik, deskontuak egingo dizkigu. Gu, azken finean, makinak saltzen dituen enpresen bezero izango gara eta horregatik, BEZA desgrabatuko digute. Erosi behar dugun material guztiaren fakturak gordeko ditugu gero BEZAren portzentai hau buelta diezaguten.

Halaber, baliabidearen izaeraren arabera hainbat mota bereizi daitezke:

- Baliabide fisikoak: makineria, kirol materiala edo bestelako ibilgetu materialak
- Baliabide pertsonalak: Entrenatzaileak, laguntzaileak, garbitzaileak, harreragileak eta aholkulariak
- Baliabide finantzarioak: Langileei soldatak ordaintzeko eta beharrezko materiala eta eraikinak erosteko behar den diru kopurua da.